

BOLETÍN N° 60 - 19 de mayo de 2006

BOLETÍN N° 207 - 18 de octubre de 2019

ORDENANZA REGULADORA DEL USO Y FOMENTO DEL EUSKERA EN EL AMBITO MUNICIPAL DE BERRIOPLANO

Exposición de motivos

El Ayuntamiento de Berrioplano considera el euskera como una de las dos lenguas propias del municipio. Se hace eco, además, en la presente ordenanza, de la voluntad favorable de la población respecto al fomento y normalización del euskera tal y como resulta de los estudios socio-lingüísticos hasta ahora realizados tanto por el Gobierno de Navarra como por la Comisión de Euskera.

Además, constatamos cómo año tras año el porcentaje de matriculación en euskera de niños de 3 años va en aumento.

Todo esto, que es expresión de una voluntad social en favor del euskera, nos indica que la población de Berrioplano será, con el transcurso de los años, cada vez más bilingüe, es decir, con un mayor número de euskaldunes en su seno. Un sector social que podrá requerir y, seguramente, requerirá del Ayuntamiento haciendo uso de los derechos lingüísticos que por ley le asisten, la prestación cada vez mayor de servicios en euskera, demanda que el Ayuntamiento con vocación de servicio público deberá atender inexorablemente.

Por tanto, el objetivo genérico de esta ordenanza es garantizar a los vecinos la dispensa de atención y servicio municipal en euskera.

Además de esta inequívoca voluntad municipal y ciudadana, debe señalarse que la Constitución Española encomienda a los poderes públicos el especial respeto y protección del patrimonio cultural que suponen las lenguas de España; que la Ley Foral del Euskera 18/1986, de 15 de diciembre, tiene como objetivo el amparo del derecho de los ciudadanos a conocer y usar el euskera y proteger la recuperación y desarrollo del mismo; que la misma Ley garantiza a los ciudadanos el derecho a dirigirse en euskera a las Administraciones Públicas y prevé la posibilidad de que en determinadas plazas sea preceptivo el conocimiento del euskera y de que en las demás sea valorado; y, por último, que los decretos forales que regulan el uso del euskera en las Administraciones Públicas de Navarra, también establecen objetivos relacionados con tal fin.

Por tanto, esta ordenanza tiene como objetivos:

Garantizar a los ciudadanos la atención en la lengua que ellos deseen utilizar.

Determinar la normativa reguladora del uso escrito del euskera.

Determinar los puestos de trabajo que precisen conocimiento del euskera a tenor de los procedimientos administrativos más usuales en los que el euskera puede ser utilizado como lengua de trabajo.

Determinar el porcentaje de valoración del euskera en aquellos puestos de en los que no sea requisito el conocimiento de este idioma.

Tratar sobre las medidas de fomento del euskera.

Determinar el nombre oficial bilingüe de Berrioplano.

En atención a la normativa citada y, de conformidad con lo establecido en el artículo 324 y siguientes de la Ley Foral 6/1.990, de 2 de julio, de la Administración Local de Navarra, se acuerda la aprobación de la siguiente ordenanza:

CAPITULO I: Del ámbito de aplicación de la ordenanza

Artículo 1. La presente Ordenanza será de aplicación en el Ayuntamiento de Berrioplano, entendiéndose como tal él mismo en sentido estricto y los Organismos autónomos de él dependientes.

Artículo 2. En aquellos servicios de competencia municipal, prestados por terceros en utilización de cualquier fórmula de gestión, será de aplicación los capítulos III y IV de la presente ordenanza.

CAPITULO II: De las relaciones interadministrativas

Artículo 3. Los documentos, notificaciones y comunicaciones administrativas que el Ayuntamiento de Berrioplano dirija a otras Administraciones Públicas sitas en la Comunidad Foral de Navarra, en la Comunidad Autónoma Vasca, en el País Vascofrancés y a entidades y organismos que utilicen habitualmente el euskera, se redactarán con carácter general en forma bilingüe.

Artículo 4. Cuando el Ayuntamiento de Berrioplano se dirija a otras Administraciones sitas en cualquier otra zona utilizará, de forma progresiva, igualmente la forma bilingüe, y, en todo caso, siempre que sea la otra Administración la que haya iniciado la relación de esta forma.

CAPITULO III: De los Derechos de los ciudadanos

Artículo 5. Los ciudadanos tienen derecho a dirigirse al Ayuntamiento de Berrioplano tanto en castellano como en euskera.

Artículo 6. A los ciudadanos que elijan dirigirse por escrito al Ayuntamiento en euskera, se les responderá en esta lengua. Se utilizará para ello el servicio de traducción _siempre y cuando no exista personal capacitado para ello_ que dará la versión oficial en castellano de lo solicitado por el ciudadano y del acuerdo o respuesta municipal que se ha de comunicar al mismo.

Artículo 7. A los ciudadanos que se dirijan oralmente a la Administración en euskera, se les atenderá en esta lengua.

Artículo 8. A efecto de los artículos 6 y 7, el Ayuntamiento diseñará y llevará a cabo un plan de actuación que tenga por objeto garantizar la presencia de personal municipal vascohablante en los lugares de trabajo de atención al público, en los términos del capítulo V de la presente ordenanza.

CAPITULO IV: De la imagen exterior municipal

Artículo 9. El Ayuntamiento de Berrioplano y los Organismos autónomos dependientes de él, utilizarán el castellano y el euskera cuando se dirijan de modo general a los ciudadanos.

Así, serán bilingües:

- a) Los bandos, edictos, carteles y placas informativas.
- b) Los sellos, tampones, logotipos, membretes y elementos similares.

- c) La rotulación de edificios, calles y espacios públicos.
- d) La rotulación de dependencias y oficinas municipales del parque móvil municipal, ropas y uniformes de empleados.
- e) La señalización tanto horizontal como vertical de lugares de interés turístico, control de servicios e indicadores de tráfico.
- f) Los documentos y modelos que el Ayuntamiento pone a disposición de los ciudadanos en orden a informar sobre los diferentes procedimientos administrativos.
- g) Cualquier otro medio o formato utilizado para reflejar la imagen exterior o institucional del municipio.

Artículo 10. 1. Los carteles serán bilingües en todos sus elementos.

2. Los folletos de información y propaganda de las actividades municipales serán bilingües cuando se dirijan a la ciudadanía en general.

3. En los folletos cuyo objetivo es anunciar una actividad de tipo cultural, deportivo, etc., programas de mano, catálogos, etc., las lenguas se utilizarán del siguiente modo:

- a) Los elementos de información general (lugar, fecha, hora ...) figurarán de modo bilingüe.
- b) Si la actividad se desarrolla a través de otro tipo de lenguajes: visual, musical, plástico, etc., la información se dará en los dos idiomas.
- c) Si la actividad a la que se refiere se basa fundamentalmente en la utilización oral del idioma (conferencias, teatro, poesía, audiovisuales, etc.) en los elementos explicativos de la misma como pueden ser Programas de mano y Catálogos, se podrá utilizar el idioma en el que la actividad se vaya a realizar, haciendo un breve resumen en la otra lengua.

Artículo 11. Publicidad en los medios de comunicación.

- 1. Los anuncios municipales insertos en la prensa se hará de forma bilingüe.
- 2. La publicidad en los medios audiovisuales –radio y televisión– se realizará en los dos idiomas.

Artículo 12. Publicaciones.

Las publicaciones del Ayuntamiento de Berrioplano y organismos dependientes de él, se realizarán de modo bilingüe cuando sean de interés general y se dirijan al conjunto de los ciudadanos, tengan interés turístico o tengan carácter emblemático o simbólico para Berrioplano.

Artículo 13. Medios de Comunicación propios (Ej. : BIM) así como aquellos que reciban ayuda económica por parte del Ayuntamiento.

- 1. En los medios de comunicación (revistas o boletines, medios digitales, redes sociales, etc.) cuya titularidad o gestión corresponda al Ayuntamiento de Berrioplano se utilizarán el castellano y el euskera en la misma medida.
- 2. Se pondrá en conocimiento de los anunciantes la posibilidad de poner sus anuncios total o parcialmente de forma bilingüe, ofreciéndoles para ello el servicio de traducción del propio Ayuntamiento.

CAPITULO V: Del personal y el funcionamiento interno municipal

Artículo 14. En la plantilla orgánica anual del ayuntamiento se determinarán aquellos puestos de trabajo que, por su mayor relación con el público o por su posición interna con relación a series de procedimiento administrativos normalizados, precisen el conocimiento del euskera de los empleados que los ocupen.

Artículo 15. A los efectos previstos en el artículo anterior se constituirá una Comisión técnicamente cualificada que estudie los ámbitos municipales en los que exista mayor relación oral y escrita con los ciudadanos, los procedimientos administrativos más usuales, la definición de los perfiles lingüísticos de los puestos de trabajo incluidos en los ámbitos o procedimientos citados, un estudio de los circuitos bilingües que garanticen la atención en euskera al ciudadano y el establecimiento de un plan de actuación en el que se fijen los medios y recursos para poder acceder al perfil lingüístico designado. Estudio para el cual dispondrá el plazo de seis meses a un año.

Artículo 16. En todas las convocatorias de puestos de trabajo que el Ayuntamiento de Berrioplano realice y en las que no sea preceptivo el conocimiento del euskera, se incluirá como mérito el conocimiento del idioma.

Artículo 17. El euskera será valorado con el 5 por 100 del total de puntos de la convocatoria (concurso más oposición) para todos aquellos puestos de trabajo que no tengan relación directa con el público y el 10 por 100 para los puestos que mantengan dicha relación.

Artículo 18. A efectos de los establecido en el artículo anterior, la puntuación máxima que se derive de la aplicación de los criterios de valoración citados se predica del nivel de conocimiento que acreditan los títulos EGA o equivalentes.

En cualquier caso, cuando se deba acreditar el conocimiento del euskera mediante una prueba, se pedirá consejo y asistencia a la misma de algún técnico de la Dirección de Política Lingüística del Gobierno de Navarra.

Artículo 19. 1. Se apoyará el aprendizaje del euskera entre los empleados municipales que lo deseen, de forma que se asegure el cumplimiento de los objetivos establecidos por esta Ordenanza.

2. El Ayuntamiento organizará planes de formación lingüística dirigidos a la consecución de los citados objetivos. En ellos se preverán reducciones de horario de trabajo, ayudas económicas y posibles sustituciones, dentro del marco establecido por el Gobierno de Navarra.

3. Los empleados municipales incluidos en estos planes de formación lingüística, así como aquellos a quienes su conocimiento del euskera haya sido valorado para su ingreso en el Ayuntamiento, o para cualquier fase de su vida profesional, podrán ser requeridos para utilizar y aportar sus conocimientos en el trabajo que desarrollen en la Administración Municipal de Berrioplano.

CAPITULO VI: Del fomento del euskera

Artículo 20. 1. El Consejo Municipal de Euskera elaborará propuestas de programas de actuación anuales tendentes a aumentar el nivel de información sobre temas referentes al euskera y a la promoción del conocimiento y uso de éste en todos los ámbitos sociales.

2. Las propuestas del Consejo serán presentadas al Ayuntamiento a través de la Comisión Informativa de Euskera.

3. El Ayuntamiento de Berrioplano, a título enunciativo, participará en iniciativas y campañas del Gobierno de Navarra y, coordinadamente, junto a otras entidades municipales, en la campaña de escolarización, campaña de matriculación para la enseñanza de adultos, campaña de transmisión del euskera dentro de la familia, campaña de

utilización del euskera en el Ayuntamiento y en revistas en euskera o de promoción del mismo, y campamentos de verano.

Artículo 21. El Ayuntamiento de Berrioplano consignará en sus Presupuestos anuales una cantidad económica destinada a los vecinos adultos del municipio que deseen participar en cursos de euskera, conforme a la Convocatoria que cada año se publicará a tal efecto.

Artículo 22. La oferta de actividades que las Areas Municipales de Cultura y Deportes realicen para niños y jóvenes entre 3 y 18 años, será generalmente en euskera en la misma proporción que la escolarización de la citada población en esa lengua. Así mismo, se ofertarán actividades culturales y deportivas en euskera dirigidas a adultos.

Artículo 23. Se promoverá la organización de actividades culturales y de promoción del euskera y se ayudará económicamente a las promovidas por la iniciativa social.

Artículo 24. El Ayuntamiento de Berrioplano solicitará a las empresas públicas y privadas de servicios con las que colabora o esté integrado en las actuaciones con el ciudadano, y mantenga con éste comunicaciones, envíos de facturas, recibos, impresos, rótulos de señalización e información dirigidos a los clientes de Berrioplano, serán habitualmente en forma bilingüe.

Artículo 25. Dentro de la Guardería Municipal y conforme se vaya aplicando la educación en aplicación de la LOGSE de 0 a 3 años, dentro del término de Berrioplano, se atenderán las peticiones de enseñanza infantil en euskera, garantizándose los derechos de los progenitores a la libre elección de modelo lingüístico para sus hijos. Del mismo modo se actuará en la enseñanza pública. En la Ludoteca municipal, Edificio Multiusos, Biblioteca municipal y Casa de Cultura, se potenciarán actividades y actuaciones bilingües en línea con lo establecido en la presente ordenanza municipal.

Artículo 26.

1. El Ayuntamiento de Berrioplano realizará periódicamente un estudio para conocer el porcentaje de población vasco hablante, con el fin de disponer de un mejor conocimiento de la situación sociolingüística del municipio, y realizar mejor las campañas específicas para ellos. Y elaborará, a través de inscripciones con carácter voluntario, un censo de personas vasco hablantes de Berrioplano, con el fin de realizar con plenas garantías campañas específicas.

2._De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 20.2 de la Ley 15/1999, de 13 de diciembre, el fichero de personas vasco hablantes tendrá las siguientes características:

a) Finalidad y usos previstos: Disponer de una herramienta de trabajo del ámbito de la sociolingüística para elaborar programas lingüísticos específicos atendiendo a la tipología lingüística del hablante.

b) Personas y colectivos afectados: Ciudadanos de Berrioplano.

c) Procedimiento de recogida de datos: Los datos serán facilitados por el interesado-a o su representante legal, a través de un formulario impreso.

d) Estructura básica y tipos de datos de carácter personal incluidos en el fichero:

1. Datos de carácter identificativo:

_Nombre y apellidos.

_Dirección.

2. Datos de características personales:

_Edad.

_Sexo.

3. Datos académicos y profesionales:

_Formación.

e) Cesión de datos de carácter personal: Los datos contenidos en el fichero no serán cedidos o comunicados a ninguna persona o entidad, distinta del interesado, ni se llevarán a cabo transferencias internacionales de los mismos.

f) Unidad orgánica responsable del fichero: Ayuntamiento de Berrioplano.

g) Medidas de seguridad: Se establecerá un plan de seguridad de nivel básico.

CAPITULO VII: Del nombre oficial de Berrioplano

Artículo 27. El Pleno del Ayuntamiento aprobará como oficial la denominación bilingüe del municipio, después de las consultas pertinentes a la Dirección de Política Lingüística del Gobierno de Navarra.

DISPOSICIONES FINALES

Primera. Esta Ordenanza entrará en vigor transcurridos quince días de la publicación en el BOLETIN OFICIAL de Navarra del acuerdo de aprobación definitiva.

Segunda. La Comisión de euskera del Ayuntamiento de Berrioplano queda capacitada para realizar el seguimiento del cumplimiento de esta Ordenanza y para hacer propuestas sobre cualquier materia que lo garantice.

60. ALDIZKARIA – 2016ko maiatzaren 19a

207. ALDIZKARIA - 2019ko urriaren 18a

BERRIOBEITIKO UDAL ESPARRUAN EUSKARAREN ERABILERA ETA SUSTAPENA ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

Zioen azalpena

Berriobeitiko Udalarentzat, euskara udalerriko bi hizkuntzetako bat da. Bere egiten du, gainera, ordenantza honetan, biztanleriaren aldeko jarrera euskara sustatu eta normalizatzeari dagokionez, bai Nafarroako Gobernuak bai Euskara Batzordeak gaur arte egindako azterlan sozio-linguistikoeak erakusten dutenez.

Gainera, urtero gora doa 3 urteko haurren matrikulazioa euskaraz.

Horrek guztiak, gizarteak euskararen alde duen borondatearen adierazgarri, Berriobetin, urteak igaro ahala, gero eta herritar gehiago elebidun izanen direla esan nahi du, hau da, gero eta euskaldun gehiago. Gizartearen sektore horrek ziur aski, legez dituen hizkuntz eskubideak erabiliz, gero eta zerbitzu gehiago euskaraz emateko eskatuko dio Udalari, eta Udalak, zerbitzu publikoa denez gero, ezinbestean euskaraz eman beharko ditu.

Beraz, herritarrek udal zerbitzuak euskaraz izan ditzaten bermatzea da ordenantza honen helburu orokorra.

Udalaren eta herritarren gogo garbi horretaz gain, aipatu behar da Espainiako Konstituzioak botere publikoen esku uzten duela Espainiako hizkuntzen kultur ondarea errespetatu eta babesteko zeregina; Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak helburutzat duela herritarren eskubidea babestea euskaraz ikasteko eta mintzatzeko eta hura berreskuratu eta garatzea; lege horrek berak administrazio publikoetan euskaraz aritzeko eskubidea bermatzen diela herritarrei eta aukera ematen duela zenbait lanpostutarako euskaraz jakin beharra nahitaezkoa izateko, eta gainerakoetan baloratua eta, azkenik, Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duten foru dekretuetan ere helburu hori ezarri dela.

Beraz, helburu hauek ditu ordenantza honek:

Herritarrei bermatzea erabili nahi duten hizkuntzan izatea harremana.

Euskararen erabilera idatziaren gaineko araudia zehaztea.

Zehaztea zein lanpostutan aritzeko jakin beharko den euskaraz, ikusita zein administrazio prozedura ohikoenetan izaten ahal den laneko hizkuntza.

Euskara baloratzeko portzentajea zehaztea, hizkuntza hori jakitera behartzen ez den lanpostuetarako.

Euskara sustatzeko neurriak jorratzea.

Berriobeitiko izen ofizial elebiduna zehaztea.

Aipatu den araudiarekin bat eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 324. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraikiz, ordenantza hau onestea erabaki da:

I. KAPITULUA: Ordenantzaren aplikazio esparrua

1. artikulua. Ordenantza hau Berriobeitiko Udalean aplikatuko da, hau da, hartan berean zentzurik hertsienean eta haren menpeko erakunde autonomoetan.

2. artikulua. Udalaren eskumeneko zerbitzuetan, edozein kudeaketa molde dela medio hirugarrenek ematen dituzten haietan, ordenantza honen III. eta IV. kapituluak aplikatuko dira.

II. KAPITULUA: Administrazioen arteko harremanak

3. artikulua. Berriobeitiko Udalak beste administrazio publikoei igortzen dizkien agiri, jakinarazpen eta komunikazio administratiboak, Nafarroako Foru Komunitatean, Euskal Autonomia Erkidegoan edo Ipar Euskal Herrian egon, baita euskaraz egin ohi duten entitate eta erakundeetakoak ere, bi hizkuntzetan idatziko dira, oro har.

4. artikulua. Berriobeitiko Udalak, beste edozein aldetako administrazioekin ari denean ere, bi hizkuntzetan egingen du, pixkanaka; eta beti, beste administrazioak harremana elebitan hasi badu.

III. KAPITULUA: Herritarren eskubideak

5. artikulua. Herritarrek Berriobeitiko Udalarekin gaztelaniaz nahiz euskaraz aritzeko eskubidea dute.

6. artikulua. Idatziz Udalari euskaraz egiten dioten herritarrei hizkuntza horretan berean emanen zaie erantzuna. Horretarako, itzulpen zerbitzua erabiliko da _langile gaiturik ez dagoenean, betiere_. Herritarrek eskatzen duenaren bertsio ofiziala emanen du gaztelaniaz, eta Udalak jakinarazi behar dion erabakia edo erantzuna, euskaraz.

7. artikulua. Ahoz, Udalari euskaraz egitea hautatzen duten herritarrei halaberean erantzunen zaie.

8. artikulua. 6. eta 7. artikuluen ondorioetarako, Udalak jarduketa plana diseinatu eta gauzatuko du, jendeari harrera egiteko tokietan udal langile euskaldunak egotea bermatzeko, ordenantza honetako V. kapituluan aipatzen den ildotik.

IV. KAPITULUA: Udalaren kanpo irudia

9. artikulua. Berriobeitiko Udalak eta bere mendeko erakunde autonomoek gaztelania eta euskara erabiliko dituzte herritarrentzat, oro har, ari direnean.

Hartaz, elebitan izanen dira:

- a) Bandoak, ediktuak, afixak eta argibideak emateko plakak.
- b) Zigiluak, tanpoiak, logotipoak, idazpuruak eta antzeko elementuak.
- c) Eraikin, kale eta eremu publikoetako errotuluak.
- d) Udalaren egoitza eta bulegoetako errotuluak, Udalaren ibilgailuetakoak, eta langileen arropa eta uniformeetakoak.
- e) Interes turistikoko, zerbitzuen kontroleko eta trafikoko seinaleak, etzanak izan ala zutikakoak.
- f) Udalak administrazio prozedura guztien gaineko argibideak eman beharrez herritarren eskura jartzen dituen agiri eta ereduak.
- g) Beste edozein baliabide edo formatu, Udalaren irudia adierazteko erabiltzen dena.

10. artikulua. 1. Kartelen elementu guztiak elebitan egon behar dira.

2. Udal jardueren informazio eta propagandako eskuorriak bi hizkuntzetan egon behar dira herritar ororentzat direnean.

3. Eskuorrien helburua kultura, kirola eta abarreko jardueraren bat iragartzea bada, honela erabiliko dira hizkuntzak:

- a) Informazio orokorreko elementuak (tokia, data, ordua ...) bi hizkuntzetan agertuko dira.
- b) Jarduera beste lengoaia batzuen bidez garatzen bada: ikusizkoa, musikala, plastikoa etab., argibideak bi hizkuntzetan eman behar dira.
- c) Delako jarduera hizkuntza baten ahozko erabileran batez ere oinarritzen bada (hitzaldiak, antzerkia, poesia, ikus-entzunezkoak, etab.) hura azaltzeko elementuetan, hala nola esku programetan eta katalogoetan, jarduera zein hizkuntzatan egin, hura erabiltzen ahal da eta laburpen txiki bat egin beste hizkuntzan.

11. artikulua. Publizitatea hedabideetan.

1. Udalaren prentsako iragakiak bi hizkuntzetan agertuko dira.

2. Ikus-entzunezkoetako (irratia eta telebista) publizitatea bi hizkuntzetan egingen da.

12. artikulua. Argitalpenak.

Berriobetiko Udalaren eta bere mendeko erakundeen argitalpenak elebitan eginen dira interes orokorrekoak direnean eta herritar ororentzat direnean, interes turistikoa badute edo Berriobetirentzat enblematikoak edo sinbolikoak badira.

13. artikulua. Hedabide berekiak (Adb.: UIA) eta Udalaren laguntza hartzen dutenak.

1. Berriobetiko Udalaren titulartasunekoak edo eskumenekoak diren komunikabideetan (aldizkariak edo buletinak, hedabide digitalak, sare sozialak eta abar) neurri berean erabiliko dira gaztelania eta euskara.

2. Iragarkiak paratzen dituztenei aditzera emanen zaie beren iragarkiak elebitan egiteko aukera dutela, erabat edo hein batean. Horretarako, Udalaren itzulpen zerbitzua eskainiko zaie.

V. KAPITULUA: Udal langileak eta Udalaren barne funtzionamendua

14. artikulua. Udalaren urteroko plantilla organikoan zehaztuko da zer lanpostutan izan behar duten euskaldun haietan aritzen diren funtzionarioek, jendearekin harreman gehiago izateagatik edo administrazio prozedura normalduen katearen barranean duten lekuagatik.

15. artikulua. Aurreko artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, batzorde bat eratuko da, teknikoki kualifikatua, zehazteko zein udal esparrutan dagoen, ahoz nahiz idatziz, harreman gehiago herritarrekin; orobat, administrazio prozedura ohikoenak, aipatu esparru edo prozedurei lotutako lanpostuen hizkuntz eskakizunak, herritarrak zerbitzua euskaraz izanen duela bermatzeko zirkuitu elebidunen azterlana eta jarduketa plan bat, non hizkuntz eskakizunak eskuratzeko bitarteko eta baliabideak finkatuko baitira. Azterlan horretarako, sei hilabetetik urtebete arteko epea izanen du.

16. artikulua. Berriobetiko Udalak lanpostuak betetzeko egiten dituen deialdi guztietan eta euskaraz jakin beharrik ez dagoenetan merezimendua izanen da euskaraz jakitea.

17. artikulua. Deialdiko puntu guztien % 5 emanen zaio euskarari (lehiaketa gehi oposizioa) jendearekin zuzeneko harremana ez duten lanpostuetarako eta % 10 harreman hori dutenetarako.

18. artikulua. Aurreko artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, aipatu balorazio irizpideak aplikatuz ateratzen den gehieneko puntuazioa dagokio EGA edo antzeko tituluek frogatzen duten ezagutza mailari.

Nolanahi dela ere, euskara maila egiaztatu behar bada proba baten bidez, aholkularitza tekniko eskatuko zaio Nafarroako Gobernu Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikorako Zuzendaritza Nagusiari.

19. artikulua. 1. Euskaraz ikasten lagunduko zaie nahi duten udal langileei, ordenantza honetan ezarritako helburuak bete daitezen.

2. Udalak hizkuntz prestakuntzarako planak antolatuko ditu, helburu horiek lortzearren. Haietan lanaldiaren murrizketak aurreikusiko dira, laguntza ekonomikoak eta ordezkapenak, Nafarroako Gobernuak ezarritako esparruaren barranean.

3. Udal langileak hizkuntz prestakuntzako plan horietan sartuta badaude edo, Udalean sartzeko nahiz haien lanbideko edozein fasetan, dakiten euskara baloratu bazaie, haien ezagutza erabiltzeko eskatu ahalko zaie Berriobetiko udal administrazioan egiten duten lanean.

VI. KAPITULUA: Euskararen sustapena

20. artikulua. 1. Udaleko Euskara Kontseiluak urteko programak prestatuko ditu euskarari buruzko gaien gaineko informazio maila handitzeko eta hizkuntza horren ezagutza eta erabilera sustatzeko gizaritearen esparru guztietan.

2. Kontseiluak Udalari aurkeztuko dizkio proposamenak Euskararen Informazio Batzordearen bitartez.

3. Aipatzearren, Berriobetiko Udalak Nafarroako Gobernuaren ekimen eta kanpainen hartuko du parte eta, beste udal entitate batzuekin koordinatuz, eskolatzeko kanpainen, helduen irakaskuntzako matrikulazio kanpainen, euskara familian irakasteko kanpainen, euskara Udalean erabiltzeko kanpainen eta euskarazko aldizkarietan edo hura sustatzekoetan, eta udako kanpaldietan.

21. artikulua. Berriobetiko Udalak diru kopuru bat ezarriko du urteko aurrekontuetan euskarazko ikastaroetan parte hartu nahi duten herritar helduentzat, urtero argitaratuko den deialdiari jarraituz.

22. artikulua. Udaleko Kultura eta Kirol Alorrek euskaraz eskainiko dizkiete jarduerak 3 eta 18 urte arteko gazteei, hizkuntza horretan eskolatuta daudenen proportzio berean. Orobat, kultur eta kirol jarduerak eskainiko zaizkie helduei.

23. artikulua. Kultur jarduerak eta euskara sustatzekoak bultzatuko dira, eta dirulaguntza izanen dute gizartearen ekimenaz eragiten direnek.

24. artikulua. Fakturak, ordainagiriak, inprimakiak, seinalizazioko errotuluak eta Berriobeitiko bezeroendako informazioa bi hizkuntzetan izatea eskatuko die Berriobeitiko Udalak berarekin lan egiten duten zerbitzuetako enpresa publiko eta pribatuei edo herritarrendako jarduketetan parte hartzen dutenei haiekin hartu-emanak dutenean.

25. artikulua. Udal Haurtzaindegian, 0 eta 3 urte artekoentzako LOGSE Berriobeitiko udal mugapean aplikatu ahala, kontuan hartuko dira euskarazko haur irakaskuntzarako eskaerak, eta gurasoek ziurtatuta dute seme-alabentzako hizkuntz eredua hautatzeko eskubidea. Modu berean jokatu da irakaskuntza publikoan. Udal ludotekan, erabilera anitzeko eraikinean, udal liburutegian eta kultur etxean jarduera eta jarduketa elebidunak bultzatuko dira, udal ordenantza honetan ezarritakoaren ildotik.

26. artikulua.

1. Berriobeitiko Udalak, aldian behin, azterlana egingen du euskaldun populazioaren portzentajea jakiteko, udalerraren egoera soziolinguistikoa hobeki ezagutu eta haiendako kanpainak hobeki antolatzeke. Orobat, borondatezko izen emateen bidez, Berriobeitiko euskaldunen zentsua egingen du, haiendako kanpainak berme guztiekin prestatzeko.

2. Abenduaren 13ko 15/1999 Legearen 20.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, euskaldunen fitxategiak ezaugarri hauek izanen ditu:

a) Aurreikusitako xede eta erabilerak: soziolinguistikaren esparruan lanabesa eskura izatea, hizkuntz programa berariazkoak prestatzeko hitzunaren hizkuntz ezaugarriei begiratuta.

b) Ukitutako norbanakoak edo taldeak: Berriobeitiko herritarrak.

c) Datuak biltzeko prozedura: interesatuak emanen ditu, edo haren legezko ordezkariak, inprimaki bat beteta.

d) Fitxategiaren oinarrizko egitura eta bertan sartuko diren datu pertsonalak:

1. Identifikazio datuak:

_Izen-deiturak.

_Helbidea.

2. Datu pertsonalak:

_Adina.

_Sexua.

3. Ikasketen eta lanbideen gaineko datuak:

_Prestakuntza.

e) Datu pertsonalen lagapena: fitxategiko datuak ez dira inori ez inolako entitateri lagako edo jakinaraziko, interesatua ez bada, eta ez da haiekin nazioarteko transferentziarik egingen.

f) Fitxategiaren ardura duen unitate organikoa: Berriobeitiko Udala.

g) Segurtasun neurriak: oinarrizko segurtasun plana ezarriko da.

VII. KAPITULUA: Berriobeitiren izen ofiziala

27. artikulua. Udalak osoko bilkuran onetsiko du udalerraren izen elebidun ofiziala, Nafarroako Gobernuako Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzan kontsulta egin ondoren.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa._Ordenantza honek indarra hartuko du behin-behineko onespeneraren erabakia Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hamabost egun iragan ondoren.

Bigarrena._Berribeiteko Udaleko Euskara Batzordeari ahalmena eman zaio segimendua egiteko ordenantza hau betetzen ote den, eta hura bermatzeko edozein gairen gainean proposamenak egiteko.